

Enpresa batean parte hartzaile berriak lortzea, mantentzea eta kopurua handitzea ezinbestekoa da hazkunderako eta egonkortasunerako:

Gure zerbitzua kalitatezkoa izateko, zerbitzu pertsonalizatua izango da. Parte-hartzaile bakoitzaren beharrak eta nahiak kontuan izanda, gure web guneko atal baten bidez hitzordua hartzeko aukera irekiko da premia hauek asetzeko helburuarekin, erantzun azkar eta hurbila bermatuz. Aldi berean, parte- hartzaileak gustura dauden eta asebetetzea ziurtatzeko hilabetean behin inkesta bat partekatuko zaie, haien iritziak eta gomendioak jasotzeko eta hori kontuan izanda hobekuntzak egiteko. Inkesta hori, hilean behin antolatutako asanbladan burutuko da, eta horretaz gain, modu parte hartzaile eta demokratikoan burututako ekintzen inguruan hitz egiteko eta hausnartzeko aukera zabalduko da. Modu honetan, parte hartzaileen premiak asetu ditugun edo ez jakiteko aukera dugu, eta aldi berean, hobekuntzak egiteko eta ikasteko aukera ere zabaltzen da.

Aurretik aipatu bezala, sare sozialak funtsezkoak izango dira parte-hartzailengana heltzeko. Horretarako, kanaletan aipatutako influencerrak, marketin digitaleko kanpainak egingo dituzte. Honen harira, eduki erakargarriak sortuko dituzte migrazioaren inguruko eta kulturantzaren inguruko sentsibilizazioa oinarri izanda.

Diru sarreretan aipatu bezala, deskontu eskusiboak eskainiko ditugu. Zehazki, bazkideak diren parte-hartzaileentzat %10eko deskontua izango dute ekintza berezietan.

Jarraitzeko, eta funtsezko elkarten atalean aipatu bezala, beste enpresekin aliantzak sortuko ditugu parte-hartzaile berri eta anitzengana iristeko.

Aldi berean, hilabetean behin parte-hartzaileekin batera antolatzen diren batzarrak funtsezkoak izango dira. Hauen bidez, parte-hartzaileen beharrak, nahiak eta iritziak identifikatzeko eta jasotzeko aukera izango dugu, eta horrela, haien parte hartzea zaindu eta bermatuko da.

Komunitatean parte hartzea oinarritzkoa izango da ere, eta horretarako, azoka lokaletan parte hartuko dugu. Aurretik esan bezala, [Bilbo Aurrera](#) izeneko azokara bertaratuko gara. Horretan, gure stand-a edukiko dugu eta parte hartzaileek euren esperientzia partekatzeko aukera edukiko dute nahi izanez gero, testigantzei garrantzia emanaz eta sentsibilizazioa zein informazioa zabaltzea oinarri izanda. Horrela, beste parte-hartzaile berriak erakartzeko modu eraginkorra izango da, sentsibilizazioa sustatuz. Aldi berean, errealitate ezberdinak ezagutzeko aukera zabalduko da, aldi berean gure balioei garrantzia emanaz. Honen bidez, maila komunitarioan zabaltzeko eta hazteko aukera izango dugu.

